



3.ZIRKULARRA

ORDUTEGIEN TAULA ETA EGUN ALDAKETAK

2019-20 Denboraldia

Aurrekoetan bezala, denboraldi honetan jarraituko den ordutegi ofizialen zerrenda jakinarazten dizuegu: (argi artifizialik gabeko futbol zelaiak)

Urriaren 27 arte, (ordu aldaketa)	16.30
Urriaren 28tik azaroaren 3ra	15.45
Azaroaren 4tik abenduaren 15era	15.30
Abenduaren 16tik urtarrilaren 5era	15.45
Urtarrilaren 6tik 19ra	16.00
Urtarrilaren 20tik martxoaren 29ra (ordu aldaketa)	16.30
Martxoaren 30etik aurrera	17.30

PARTIDEN ORDUTEGIAK

Federazioko eginkizunen koordinazioa hobetzeko, arren eskatzen dizuegu partidua jokatu baino **10 egun lehenago ordua eta eguna jakinarazi beharko da**, eta ondorioz **inoiz ez jardunaldiaren aurreko astearen ostiraleko 20:00ak baino beranduago. Dena den aplikazio informatikoa bultzatu nahian eta SALBUESPEN bezala astelehen goizeko 8:30ak arte ordutegiak bertan sartzea utziko da.**

Ordutegi hauek, nahitaez Federaziora idatziz bidali beharko dira ondorengo komunikabideen bitartez:

- Federazioko web orrialdeko ordutegien atalean (salbuespen bezala astelehen goizeko 8:30ak arte ordutegiak bertan sartzea utziko da)
- Federazioko web orrialdeko barne posta (**beti ostiralean eta 20:00ak baino lehen**)
- e-mail (futbol@fgf-gff.org) (**beti ostiralean eta 20:00ak baino lehen**)
- Fax-a 943470717 (**beti ostiralean eta 20:00ak baino lehen**)

Beraz, ordutegiak ezingo dira, inolaz ere, telefonoz jakinarazi. Aipaturiko betebeharraren hirugarren ez betetzea zigortuko da indarreko diziplinazko araudietan ezarritakoaren arabera.

Infantil eta kadeteen mailtako taldeek posible dute beraien partidak larunbatera, goizez edo arratsaldean aurreratzea aurkakoaren baimenik gabe. Beste maila guztiek, **jubenilek eta afizionatuek aurkakoaren baimena beharko dute larunbatean 15:30ak baino lehenago jokatu nahi badute.**

Batzar Nagusian hartutako 2008ko ekainaren 28aren akordioa dela eta, partida jokatu behar duten **kluben herrien arteko distantzia kilometrikoa 50 Km baino gehiago bada**, partidaren hasierarako **ordu-tarte bat ezarri da: goizeko 11,00etatik arratsaldeko 17:30etara. Hori bai, beti goiko paragrafoan jartzen duena errespetatu behar da.**

Astelehenetako 13,00 orduetatik aurrera agertu den Klubek proposatutako ordutegiaren edozein ordu-aldaketa, AURKAKO TALDEAREN ADOSTASUNA eta EPAILEEN BILTZAR TEKNIKOAREN BAIMENA behar izango ditu nahitaez. Zentzu honetan gogorazten da, partiduen egunen eta ordutegiaren aldaketak egiteko etengabeko eskariak ikusita, gehienak justifikaziorik gabekoak, **GIPUZKOAKO EPAILEEN BILTZAR TEKNIKOAK, Gipuzkoako Futbol Federazioaren babesarekin, **EZ DU EMANGO BAIMENA HASIERA BATEAN BIDALITAKO ORDU ETA EGUN PROPOSAMENEN ALDAKETAK, SALBUESPENEZKO EZINBESTEKOAK edo EZUSTEKOAK ez badira behintzat**. Hau dela eta ordutegi eta egunak ezartzeko izapideak ardura handiz egitea eskatzen dizuegu.**

PARTIDEN EGUN ALDAKETAK

Euskadiko Futbol Federakundeko Araudi Orokorrean azaltzen den **Lehiaketen III.Liburuko eta 4.ataleko 95 artikulua** literalki jaso dugu, bere garrantzia eta eragina kontuan izanda:

"Dagokion Federakundeak, egoera bereziak ematen direla eta, eta jolastu behar duten bi klub edo K.E.etako batek eskatuta, bestearen baimenarekin, partidu konkretu bat aurreratu ala atzeratu dadila baimendu dezake, beti ere egutegi ofizialean ezarritako beste partiduen ordena aldatzen ez baldin bada, noski."

Esandakoa bete dezazuen eskatzen dizuegu; ordutegia aurrez jakiteak federazioko estamentu guzien plangintza hobetzea ekarriko luke.

Donostia, 2019ko abuztua
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

- Lehendakaria -
- **Juan Luis Larrea Sarobe**